

HITZ BITAN

Ikus-entzunezko Kontseilua eratzeke lege proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak

Ikus-entzunezko eta irratiko jarduerak arautzeko eta Ikus-entzunezko Kontseilua sortzeko lege proiektua onartu zuen atzo Nafarroako Gobernuak, eta Parlamentura igorriko du eztabaidatu eta onartzeko. Lege proiektuak ikus-entzunezko jarduerak jarraitu behar dituzten arauak biltzen ditu, programazio oinarriak, publizitatea, haurren babesa, e.a. Eta irratiko eta telebista kateek legea betetzen dutela egiaztatzeko sortuko du Ikus-entzunezko Kontseilua.

Milioitik gorako balioko lapurreta egin izanagatik lagun bat atxilotu du Gasteizen Udaltzaingoak

Imitaziozko hainbat bitxi, 50 eguzkitako betaurreko eta 38 galtza bakero lapurtzeagatik lagun bat atxilotu du Gasteizen Udaltzaingoak. Lapurtutako gauzek milioi bat (40.000 libera) pezetako balioa dute, lapurreta egin zeneko dendako arduradunak jakinarazi zuten. Lapurreta iragan ostiralean izan zen. Lapurrak erakusleioa harri kolpez apurtu eta barrura sartu zen.

Begi lausoen ebakuntza da ohikoena EAEko ospitaleetan, Eustaten ikerketa baten arabera

1999an 15.663 ebakuntza egin ziren begi lausoak sendatzeko; 1998ko datuekin alderatuz gero, %14,5 gehiago. Horixe erakutsi du Eustatek egin ikerketa batek. Bi osagaik baldintzatu dute igorera hori: batetik, 65 urtetik gorakoen eskariaren gehitzeak eta bestetik, osasun-teknologia horren eskaintza hobetu izanak. Ospitaleratze gehienak, berriz, bihotz eta zirkulazio gaitzek eragin zuten.



JOSE LACALLE
Iñaki Lasa koordinatzailea, Iñaki Saen eta Jaione Perkaiz Iruñeko dantza taldekoak eta Pello Perez De Labeaga, Oinezeko futbol txapelketako arduraduna, atzoko agerraldian.

NAFARROA OINEZ

Futbola, dantza eta txanpon berria Nafarroa Oinezeko lehenengo ekimenetan

Miren Iriarte | IRUÑA

2001eko Nafarroa Oinezeko arduradunak hiru ekimen berri jarri dituzte abian urte osoko programazioa osatzen hasteko. Dantza, musika eta futbol txapelketa ekarriko dituzte heldu den larunbatean, eta zilarrezko txanpon berria jarri dute salgai.

Lehenengo ekitaldia futbol txapelketa izanen da, Taxoaren larunbat goizean. Bertan Athletic eta Realeko gazteak eta ikasletoletako eta euskarazko irakasleak eskaintzen duten zentroetako gazteak osatuko duten Oinez selekzioa izanen dira lehian, Pello Perez de Labeaga arduradunaren esanetan. Txapelketa goizeko 11:30ean hasiko da eta sarrera doan izanen da; «kirolean euskaraz duen hutsunea betetzea du helburua», Perez de Labeagak esan zuenez.

Larunbatean bertan Iruña Taldea euskal kultur elkarteak

prestatutako Xakutin dantza eta musika ikustaldia izanen da. Euskal Herriko herrialde guztietako dantzak eta musikak ematen dituzte, herri bateko jaietan giroturiko eszenatokian. Iñaki Saenz Iruña Taldeko kideak esan zuenez, betiko euskal dantza ikuskizunek gaurkotatzen ez dutela eta «beste zerbaitek ematearen beharraz» sortu dute Xakutin ikuskizuna.

Izena ere ikuskizuna izanen denaren adierazgarri da, «plater guztietatik zerbaite hartzea gusatzen zaiona baita Xakutin», eta emanaldian Euskal Herriko herrialde guztietako dantzak, kantak eta musikak ematen dituzte. Larunbatean, arratsaldeko 20:00etan izanen da hori Labriten, eta sarrerak 500 pezetatan dira salgai.

Iragana eta etorkizuna

Hirugarren ekimena zilarrezko txanpona da. Iñaki Lasa Nafarroa Oinezeko koordinatzaileak

EKIMENAK

Txanpona. Zilarrezko ontza, euskararen iraganaren eta etorkizunaren sinbolo.

Futbol txapelketa. Larunbatean Taxoaren, Reala, Athletik eta Oinez Selekzioa.

Xakutin. Iruña Taldearen musika eta dantza ikuskizuna, larunbatean Labriten.

roa Oinezeko koordinatzaileak esan zuenez txanponak duen sinbolismoa da garrantzitsua, «alde batean iragana eta bestean etorkizuna lotzen baititu».

Santimamiñeko bisontea, iberiar grafiaz lehenengo aldiz vasconum hitza jaso zuen txanpona eta Iruñeko Foru Monumentuko idazkia jasotzen ditu alde batean txanponak, «iragana», eta Muskaria ikastola izanen denaren irudia beste aldean, «etorkizuna», Iñaki Lasa Nafarroa Oinezeko koordinatzaileak esan zuenez. Txanponaren diseinua Joseba Beramendik egin du eta Oinez Dendan da salgai 8.000 pezetatan. 500 ale basterik ez dituzte egin.

Gabonetako merkatu berezia izango da gaur Ordizian

Goizeko 09:00etan hasi eta 14:00ak artekoan Euskal Herriko eta inguruko erkidegoetako hainbat produktu izango dira salgai Ordiziako Gabonetako merkatuan. Guztira 400 erakusmahaitik gora izango dira. Halaber, abere eta artisautza lanen erakusketak ere izango dira. Era berean, sei sari berezi ere eskainiko dira: errege sagarrarena, fruitu lehorrena, asteroko merkatuko produktuena, ahari eta ardiak eta Gipuzkoako odolostearena.

'Radio Renteria' irrati emisoreak gaur hasiko ditu bere emisioak

Radio Renteria irrati emisoreak gaur ekingo dio emititzeari Frekuentzia Modulatu 105.4an. «Eguneroko programazioa izango du», Antxon Sanchez irratiaren arduradunak azaldu zuenez. Hizlariak euskaraz eta gaztelaniaz arituko dira eta saio ezberdin ugari izango dira: informatiboak, kirol saioak, magazinak... Halaber, irrati-eskolak ere eskainiko dira Radio Renteriaren egoitzan.

Gabonetako zuhaitzak bilduko ditu Gasteizko Udalak urtarilaren 8tik 11 artekoan

Gabonetako zuhaitzak bilduko ditu Gasteizko Udaleko Ingurumen Sailak urtarilaren 8tik 11 bitartean. Jose Antonio Pizarrok esan zuenez, «zabor-ontzira botako diren zuhaitzeki probetxua ateratzea da kanpainaren helburua». Datorren urteari begira, zuhaitz artifizialak erosteko gomendioa egin zuen Pizarrok, hala ere, benetako zuhaitzak gogoko dituztenei «aukera bat eman behar zaiela» aitortu zuen.

Bizitza osorako ikasketetarako eman izan diren laguntzak arautuko ditu Jaurlaritzak

Bizitza osorako ikasketetarako eman izan diren laguntzak arautuko ditu Eusko Jaurlaritzak, atzo onartu dekretuaren bidez. Europa Batasuneko kontseiluak bultzatutako heziketa modu berriari heldu nahi izan dio Jaurlaritzak. Helburua, 25 urtetik gorakoak prestatzea da, lanerako aukera handiagoak izan ditzaten.



ANDOAINGO UDALA

OBREN KONTRATAZIO

Kontratuaren xedea: Andoaingo Leitzaran kaleko berurbanizazio obrak.
Lizitazio mota: 13.191.672,- pezeta (BEZ barne).

Espedienteak non azter daitezke eta Klausula Administratibo Partikularren Plegua non eskura daiteke: Andoaingo Udaletxeko Hirigintza, Obra, Ingurugiro eta Landa Ingurunerako Lantzaileko bulegoetan ikusgai egongo dira, goizeko 9etatik eguerdiko 13,30etara. Kopia nahi izanez gero, ondoko tokian jaso ahal izango da: Planitec etxea, Urdaneta Kalea 4. behea. Donostia.

Proposamenak aurkezteko epea eta tokia: Andoaingo Udaletxeko Hirigintza, Obra, Ingurugiro eta Landa Ingurunerako Lantzaileko bulegoetan, (9:00etatik 13,30etara.), 2001.01.17a azkeneko eguna.

Andoain, 2000ko abenduaren 26an. ALKATEA.



ANDOAINGO UDALA

KONTRATAZIO

Kontratuaren xedea: Andoaingo 20.1, 20.2 eta 21 Sektore Bategineko Urbanizazio obren ikuskaritza eta kontrol lanak egiteko laguntza teknikoaren kontratua

Lizitazio mota: 7.250.000,- pezeta (BEZ barne).

Espedienteak non azter daitezke eta Klausula Administratibo Partikularren Plegua non eskura daiteke: Andoaingo Udaletxeko Hirigintza, Obra, Ingurugiro eta Landa Ingurunerako Lantzaileko bulegoetan ikusgai egongo dira, goizeko 9etatik eguerdiko 13,30etara.

Proposamenak aurkezteko epea eta tokia: Andoaingo Udaletxeko Hirigintza, Obra, Ingurugiro eta Landa Ingurunerako Lantzaileko bulegoetan, (9:00etatik 13,30etara.), iragarkia G.A.Oean (2001.01.04) argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta 13 egun naturaletan.

Andoain, 2000ko abenduaren 26an. ALKATEA.